

Ez gaitezen bidean galdu

Alderdi, 282. zk., 1973-02.

Izaten ditugu gure artean, erri bezala jota, gizonari aurrean agertzen zaizkion zenbait aukera.

Gizonak ezin egin izaten gauza *guziak* eta *batera*. Guetako bakoitzak ba daki orrenbeste. Baiña aaztutzen zaigu askotan, gizonari bakarka gertatzen zaiona bera gertatzen zaiola erri bateri ere, eta erri bezala buruz jokatuko badugu, gauzak bata bestearen atzetik egin beharreko aukera bat egin bear dugula, eta *erri bezala orain* sentitzen geranok elkar egin eta askatasun-bidean *leendabizi* eta *arerioen* ikusten dugunari eraso bear diogula.

Au da gure gaurko aukera.

Onesk ez du esan nai aukera bakar ontan geratuko geranik. Garai bakoitzak berea eskatzen du, eta askatasun bidean jarri eta gero ikusiko ditugu bakoitzaren ibil-bideak. Baiña bide aukera egin bearrean gera, eta gainontzekoak bereak egiteko aukerak egiten dituzten bezala, egin dezagun guk ere gurea: Euzkadi-rena.

Askatasunaren borroka egunero asten da, eta ez da iñoiz amaitzen.